

EBAZPENA, 2007ko maiatzaren 31koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Bizkaiko Lurralde ordezkariarena. Honen bidez, Berokuntza, Aireztapen eta Aire Egokituko Instalatzaileen sektorearentzako Hitzarmen Kolektiboa erregistratu eta argitaratzea ebazten da. Hitzarmenaren Kodea: 4801345.jj

### *Aurrekariak*

1. 2006ko abuztuaren 2an aurkeztu zuten Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan Berokuntza, Aireztapen eta Aire Egokituko Instalatzaileen hitzarmen kolektiboa (2006-2008), 2006ko uztailaren 14an sinatua, baita Negoziazio Mahaiaren 2006ko apirilaren 26ko hasierako akta ere. Hona mahaikideak: CC.OO., ELA, LAB eta U.G.T. sindikatuak, eta AIMVI-CEBEK, enpresaburuen ordezkariak.

2. Azken akta eta hitzarmenaren testua AIMVI-CEBEK enpresaburuen ordezkariak eta negoziazio batzordekideak diren CC.OO. eta U.G.T. sindikatuak sinatu dute.

3. 2006ko irailaren 27an hitzarmena negoziatzen duen batzordeari eskatu zitzaion hitzarmen kolektiboaren banko sozialaren osaketan sindikatuei emandako ordezkari-taldea zuzentzeko, eta hitzarmenaren soldata-taula, «aurreneko urteko prestakuntza» kategoriarako, legez kanpokoa izan zitekeelakoan.

4. CEBEKeko ordezkariak, eta CC.OO., U.G.T. zein LABkoek alegazioak aurkeztu zituzten, 2006ko urriaren 10ean; ez berriz, ELAkoek, ezta LSB-USOkoek ere.

5. 2006ko urriaren 26an, Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak ofiziozko demandav bidali zion Lan arloko Epaitegiari, Lan Prozeduraren Legearen Testu Bategineko 161. artikulurekin eta horrekin bat datozen artikuluen babesean, Lan arloko Epaitegiak Batzorde Negoziatzailearen eraketa eta bertan parte hartzen duten sindikatu bakoitzari emandako ordezkari-taldea egokiak diren ala ez erabaki zezan, eta, horrenbestez, aipatutako hitzarmenarek eragin-kortasun orokorra emateko behar besteko gehiengoa ote den ala ez ere erabaki zezan. Orobat, eskatu zen soldata-tauletan ezarritako ordainketa aurreneko urteko prestakuntza-kategoriarako abenduaren 30eko 1613/2005 Errege Dekretuaren arabera den ala ez ezartzeko (haren bidez, lanbideen arteko gutxieneko soldata ezarri zen).

6. 2007ko martxoaren 28an, Bizkaiko 5. zk. Lan-arloko Epaitegiak epaia eman zuen, eta hura irmoa da, alderdiek ez baizuten errekurritu. Haren bidez, ofiziozko demanda osorik gaitzesten da.

### *Zuzenbideko oinarriak*

1. Aipatutako Hitzarmen Kolektiboa inskribatu eta argitaratzeko eskumena Langileen Estatutuaren Testu Bategina onartu zuen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuko 90.2 artikulua erabakitzen du, eta artikulua horrek xedatzen duenez, hitzarmenak —erregistratzeko bakarrik— Lan Agintaritzari aurkeztu beharko zaizkio, hori guztia Hitzarmen Kolektiboaren Erregistroa sortu eta antolatzeari buruzko Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 2ko 39/1981 Dekretuak eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren urriaren 18ko 315/2005 Dekretuaren 24.1.g) artikulua —Euskadiko Hitzarmen Kolektiboaren Erregistroko Lurralde Atalaren kudeaketa Lurralde Ordezkaritzari ematen dionak— xedatutakoaren ildotik.

2. Langileen Estatutuko Testu Bategineko 90.5. artikulua araberak, lan-arloko agintaritzak ulertzen badu hitzarmenak indarrean dauden legeak urratu ditzakeela edo hirugarren interesa larriki kaltetzen duela, ofizioz joko duela jurisdikzio eskudunera, kasu honetan egin den bezala; baina, Bizkaiko Lan arloko 5. zk. Epaitegiak, ordea, osorik gaitzetsi du martxoaren 23ko epaia, eta epai hori irmoa

RESOLUCIÓN de 31 de mayo de 2007, de la Delegada Territorial en Bizkaia del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se resuelve el registro y publicación del Convenio Colectivo para el Sector Instaladores de Calefacción, Ventilación y Aire Acondicionado. Código Convenio núm. 4801345.

### *Antecedentes*

1. Que con fecha 2 agosto de 2006, se ha presentado, ante esta Delegación Territorial de Bizkaia, el texto del Convenio Colectivo para el Sector Instaladores de Calefacción, Ventilación y Aire Acondicionado para los años 2006-2008, suscrito el 14 de julio de 2006, así como el acta inicial de Constitución de la Mesa Negociadora de fecha 26 de abril de 2006, compuesta por las centrales sindicales CC.OO., ELA, LAB y U.G.T. y la representación empresarial AIMVI-CEBEK.

2. Que el acta final y el texto de dicho convenio ha sido suscrito por los representantes de la patronal AIMVI-CEBEK y por los representantes sindicales CC.OO. y U.G.T. de la Comisión Negociadora.

3. Con fecha 27 de setiembre de 2006, se requirió a la Comisión Negociadora del Convenio para que subsanara la representación asignada de los sindicatos en la composición del Banco social del Convenio Colectivo, y las tablas salariales del convenio para la categoría de «formación de primer año» por considerarse que podía ser ilegal.

4. La representación de CEBEK, de CC.OO., U.G.T. y LAB presentaron alegaciones con fecha 10 de octubre de 2006, no habiendo formulado alegación alguna la representación de ELA y LSB-USO.

5. Con fecha 26 de octubre de 2006, esta Delegación Territorial de Bizkaia remitió al Juzgado de lo Social escrito de demanda de oficio, al amparo del artículo 161 y concordantes del Texto Refundido de la Ley de Procedimiento Laboral, en relación al artículo 90.5 del Estatuto de los Trabajadores, a fin de que por el Juzgado de lo Social se determinase si era correcta la constitución de la Comisión Negociadora y la representación otorgada en la misma a cada uno de los sindicatos que la constituyen y en su consecuencia existe mayoría suficiente para otorgar al citado convenio la condición de eficacia general. Asimismo se solicitó la determinación de si la retribución establecida en las tablas salariales para la categoría de formación de primer año era conforme al R.D. 1613/2005, de 30 de diciembre, por el que se fija el salario mínimo interprofesional.

6. Con fecha 28 de marzo de 2007 se dictó sentencia por el Juzgado de lo Social número 5 de Bizkaia, siendo firme la misma, por no haber sido recurrido por ninguna de las partes, en la que desestima íntegramente la demanda de oficio.

### *Fundamentos de Derecho*

1. La competencia para la inscripción y publicación del citado Convenio Colectivo viene determinada por el Real Decreto Legislativo 1/1995, de 24 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido del Estatuto de los Trabajadores, conforme a lo dispuesto en su artículo 90.2, que determina que los Convenios deberán ser presentados ante la Autoridad Laboral a los solos efectos de registro, en relación con el Decreto del Gobierno Vasco 39/1981, de 2 de marzo, sobre creación y organización del Registro de los Convenios Colectivos de Trabajo, y la Orden de 3 de noviembre de 1982, que desarrolla el citado Decreto, así como el artículo 24.1.g) del Decreto 315/2005, de 18 de octubre, del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, que atribuye a la Delegación Territorial la facultad de gestionar la Sección Territorial del Registro de Convenios Colectivos de Euskadi.

2. El artículo 90.5 del Texto Refundido del Estatuto de los Trabajadores determina que si la Autoridad Laboral estimase que el Convenio puede conculcar la legalidad vigente o lesiona gravemente el interés de terceros, se dirigirá de oficio a la Jurisdicción competente tal como se ha efectuado en el presente supuesto, pero sin embargo el Juzgado de lo Social número 5 de

da 2007ko maiatzaren 23ko autoaren arabera; horrenbestez, begibistakoa da, aipatutako epaiaren arabera, kasu honetan ez dela hirugarrenen interesa kaltetzen, ezta indarrean dauden legeak urratzen ere, eta, horrenbestez, hitzarmena erregistratu eta gordailuan gorde behar da, baita «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu ere.

Aipatutako legezko arauak eta oro har aplikatzekoak direnak ikusirik, Bizkaiko Lurralde ordezkariek, zera

#### EBATZI DU:

1. Berokuntza, Aireztapen eta Aire Egokituko Instalatzaileen sektorearentzako Hitzarmen Kolektiboa Lurralde Atal honetako Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan inskribatzeko agintzea.
2. Aipatutako Hitzarmen Kolektiboa «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzea.
3. Lurralde Ordezkaritza honetako Harreman Kolektiboen Atalean gordailatzea.
4. Ebazpen hau alderdiei jakinaraztea, eta, era berean, haren kontra Eusko Jauarlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren zuzendariari gora jotzeko errekurtsoa jartzea dutela, hilabeteko epean, 114. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeko 115. artikuluaekin lotuta (4/1999 Legeak aldatuta), urriaren 18ko 315/2005 Dekretuko 17.j) artikuluaekin (haren bidez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko egitura organiko eta funtzionala ezarri zen).

Bilbon, 2007ko maiatzaren 31ean.—Bizkaiko Lurralde Ordezkariek, Carmele Arias Martínez

#### BEROKUNTZA, AIREZTAPEN ETA AIRE GIROTUARI BURUZKO BIZKAIKO HITZARMEN KOLEKTIBOA (2006-2008)

##### I. KAPITULUA

##### BALDINTZA OROKORRAK

#### 1. artikulua.—*Funtzio, langile eta lurralde eremua*

Honako jardura hauetan aritzen diren enpresei aplikatu dakizkiekeen baldintzak arautzen dituzten arauak ezartzen ditu hitzarmen kolektibo honek: ura berotzeko hodiak instalatzea, edozein energia-iturriekin, baita berokuntzakoak eta haien mantentzea ere, eta gauza bera aireztapenekoak, hozketakoak edota aire girotukoak dagoenez. Enpresa horien eta haien langileen arteko besteren konturako lan-harremani aplikatzeko izango da, Langileen Estatu-tuaren lehen artikuluan xedaturikoaren arabera.

Aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira dagokien funtzioa soilik betetzen duten enpresetako gobernu-organismoak eta enpresa horietako goi-zuzendaritzako langileak.

Bizkaiko probintzian izango da aplikatzeko hitzarmen kolektibo hau, egoitza probintzian duten enpresentzat zein, egoitza probintzietatik kanpo izanda ere, hitzarmen honetako 1. artikuluan bilduriko jardura Bizkaian garatzen dutenentzat, eta langileek hitzarmen kolektibo onuragarrienaren alde egin ahalko dute urte osoari begira.

#### 2. artikulua.—*Iraunaldia eta amaiera iragartzea*

Sinatzen den unean hasiko da indarrean hitzarmen hau, bere ondorioek 2006ko urtarrilaren 1era arteko atzeraeragina izango badute ere, salbu eta hitzarmenaren artikuluetan bereziki xedaturikoari dagokionez.

2006ko urtarrilaren 1etik 2008ko abenduaren 31ra bitarteko iraunaldia izango du hitzarmen honek.

Bi alderdiek hitzarmenaren amaiera 2008ko urriaren 1ean iragarriko dutela hartuko da kontuan.

Langileen eta enpresaren ordezkariek aurreproiektua elkarri emango diote urriaren 15etik 30era bitartean, eta eman eta gehiezin hamabost eguneko epean negoziazioak hasteko konpromisoa hartzen dute bi alderdiek ere.

Bizkaia ha desestimado íntegramente la demanda por sentencia de 28 de marzo, sentencia que es firme conforme al Auto de 23 de mayo de 2007, por lo que es evidente que conforme a la citada sentencia en el presente supuesto no se lesiona el interés de terceros ni se conculca la legalidad vigente, por lo que procede su registro y depósito, así como disponer su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

Vistos los preceptos legales citados y demás de general aplicación, la Delegada Territorial en Bizkaia

#### RESUELVE:

1. Ordenar la inscripción en el Registro de Convenios Colectivos de esta Sección Territorial del Convenio Colectivo del Sector Instaladores de Calefacción, Ventilación y Aire Acondicionado.
2. Disponer la publicación del citado Convenio Colectivo en el «Boletín Oficial de Bizkaia».
3. Proceder a su correspondiente depósito en esta Delegación Territorial
4. Notificar la presente Resolución a las partes, haciendo saber que contra la misma podrán interponer recurso de alzada ante el Director de Trabajo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, en el plazo de un mes, de conformidad con lo establecido en el artículo 114, en relación con el artículo 115 de la Ley de 30/1992 de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, en relación con el artículo 17.j) del Decreto 315/2005, de 18 de octubre, por el que se establece la Estructura Orgánica y Funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

En Bilbao, a 31 de mayo de 2007.—La Delegada Territorial en Bizkaia, Carmele Arias Martínez

#### CONVENIO COLECTIVO DE CALEFACCIÓN, VENTILACIÓN Y AIRE ACONDICIONADO DE BIZKAIA (2006-2008)

##### CAPÍTULO I

##### CONDICIONES GENERALES

#### Artículo 1.—*Ámbito funcional, personal y territorial*

Este Convenio Colectivo establece las normas que regulan las condiciones de trabajo aplicables a las empresas cuya actividad sea la de instalación de conducciones para calentamiento de agua, con cualesquiera fuente de energía, de calefacción y su mantenimiento, así como de ventilación, refrigeración y/o aire acondicionado, y será de aplicación a las relaciones de trabajo por cuenta ajena existentes entre estas y sus empleados, de conformidad con lo dispuesto por el artículo primero del Estatuto de los Trabajadores.

Quedan excluidas de este ámbito de aplicación los miembros de los Organos de Gobierno de las empresas, que se limiten al ejercicio exclusivo de esa función y el personal de Alta Dirección de las mismas.

Este Convenio Colectivo, será aplicable en la provincia de Bizkaia, tanto para las empresas en ella domiciliadas como para las que, sin tener aquí su domicilio, desarrollen en Bizkaia la actividad comprendida en este artículo 1 del Convenio, pudiendo optar los trabajadores por el Convenio Colectivo más favorable en su cómputo anual.

#### Artículo 2.—*Vigencia y denuncia*

El presente Convenio entrará en vigor en el momento de su firma, si bien sus efectos se retrotraerán al 1 de enero del 2006, salvo lo dispuesto específicamente en el articulado.

El período de vigencia del presente Convenio será desde el 1 de enero del 2006 al 31 de diciembre del 2008.

El presente Convenio se considera denunciado por ambas partes el 1 de octubre del 2008.

Las representaciones social y empresarial se harán entrega del anteproyecto del 15 al 30 de octubre y, como máximo a los quince días de su entrega ambas partes se comprometen a iniciar las negociaciones.

**3. artikulua.—Osootasunarekiko lotura**

Hitzarmen honetan itunduriko baldintza ekonomikoek osotasun organiko eta zatiezina eratuko dute, eta, aplikazio praktikoari begira, oro har hartuko dira kontuan urte osorako.

Lan-arloko administrazio-agintaritzak edo lan-arloko jurisdikzioak, bere eskumenen jardunean, hitzarmenaren artikuluren batek edo hainbatek indarrean dagoen legeria urratzen duela erabakitzen badu, honela ekingo zaio:

1. Erabakiak artikulua osoa eraginpean hartzen badu, artikulua osorik geratuko da eraginik gabe, eta aurreko hitzarmeneko artikuluen testua aplikatu ahalko da behin-behineko, halakorik izanez gero.
2. Erabakiak artikulua bat partzialki hartzen badu eraginpean, eta artikulua horrek aurreko hitzarmenean aurrekaririk ez badu, artikulua osorik geratuko da eraginik gabe. Aurrekaririk izanez gero, artikulua horretako testua behin-behineko aplikatuko da.

Aurreko paragrafoan xedaturikoa aparte utzi gabe, hitzarmen kolektiboa sinatzen duten alderdiak berehala bilduko dira deuseztat deklaraturikoa ordezeko. 30 egun igaro ondorez ordezkapenik lortu ez bada, PRECO II erakundearen bitartekotza-prozeduraren eraginpean jarriko dira nahitaez alderdiak, eta bitartekariaren proposamena onartzen ez badute, PRECO II erakundearen arbitraje-prozeduraren eraginpean jarriko dira nahitaez.

**4. artikulua.—Konpentsazioa, irenspena eta bermeak**

1. Hitzarmen honetan itunduriko baldintzak, edonolakoak direla ere, osorik konpentsa daitezke lehen eraentzen zutenekin, horretarako arrazoiak arrazoi (itunduriko hobekuntza edo enpresak alde batez emanikoa, lege-agindua, jurisprudenzia, auzi-bidea edo administrazio-bidea, laneko hitzarmen kolektiboa, usadio eta ohiturak), eta langileek indibidualki atxikiko dituzte konpentsazio hori gainditzen duten baldintzak, oro har eta urte osorako, artikulua honetako 2. idatzatian agindurikoa aparte utzi gabe.

2. Hiru urteko iraunaldirako hitzarmen honetan itunduriko kontzeptu ekonomikoak alde batera utzita (dagozkien soldata-tauletan daude bilduta), hitzarmenaren eraginpeko langileei bermatu egiten zaie urte bakoitzean dagoen soldata-aldea soldata-taula horietako lansarien eta aurreko urtekoen artean, eta II. eranskinean daude horiek guztiak jasota lanbide-kategorien arabera.

3. Hitzarmenaren hedadura kontuan izanda, legezko xedapenek eta etorkizuneko hitzarmenek, betiere lansari-kontzeptu guztietan edo batzuetan aldaketa ekonomikoa eragiten badute, eragin praktikoa izango dute non eta osorik kontuan hartuta eta hitzarmenaren aurretik indarrean zeudenei batuta hitzarmenaren maila osoa gainditzen duten, ez bestela. Horrela ez bada, eginiko hobekuntzek irentsi dituztela hartuko da kontuan.

## II. KAPITULUA

## LAN BALDINTZAK

**5. artikulua.—Lanaldia eta ordutegia**

1. Urteko lanordu efektiboak indarreko urteetarako honako hauek izango dira: 1.718 ordu 2006. urterako, eta 1.713 ordu 2007rako eta 2008rako.

2. Baldintza onuragarrienak atxikiko dira lanaldi- eta ordutegi-arloan.

3. Hainbat lanbide-kategoriari aitorturiko udako lanaldi murriztua indibidualki atxikiko da, soldadari begira egiaz lan eginiko orduak ordainduko badira ere, betiere artikulua honetan xedaturikoari jarraiki.

4. Urteko egutegiak eta laneko ordutegi arruntak adostasunez ezarriko dituzte enpresak eta langileek. Apirilaren 30a baino lehen prestatuko da egutegi hori.

**Artículo 3.—Vinculación a la totalidad**

Las condiciones pactadas en este convenio colectivo forman un todo orgánico e indivisible y efectos de su aplicación serán consideradas globalmente en cómputo anual.

En el supuesto de que la autoridad administrativa laboral o la jurisdicción social, en el ejercicio de sus competencias, resolviera que alguno/s de los artículos del Convenio conculca la legalidad vigente, se procederá del siguiente modo:

1. Si la resolución afecta a la integridad del artículo, este quedará sin efecto en toda su extensión, siendo provisionalmente aplicable en su lugar si lo hubiera, el texto del artículo del convenio precedente.
2. Si la resolución afecta parcialmente a un artículo, que no ha tenido procedente en el Convenio anterior, quedará el mismo sin efecto en su totalidad. De existir precedente se aplicará su texto provisionalmente.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo anterior, las partes firmantes del Convenio Colectivo se reunirán de forma inmediata con la finalidad de sustituir a través de la negociación lo declarado nulo. Si la sustitución no se alcanzara transcurridos 30 días, las partes se someterán preceptivamente al procedimiento de mediación del PRECO II y de no ser aceptada la propuesta del mediador quedarán sometidas obligatoriamente al procedimiento de Arbitraje del PRECO II.

**Artículo 4.—Compensación, absorción y garantías**

1. Las condiciones pactadas en este Convenio, cualquiera que sea su naturaleza son compensables en su totalidad con las que anteriormente rigieran, por mejora pactada o unilateralmente otorgada por la empresa, imperativo legal, jurisprudencia, contencioso o administrativo, convenio colectivo de trabajo, usos y costumbres, manteniéndose las que excedan de tal compensación a los trabajadores a título personal, en su conjunto y cómputo anual, sin perjuicio de lo ordenado en el apartado 2 de este artículo.

2. Con independencia de los conceptos económicos pactados en este convenio colectivo para sus tres años de vigencia, objeto de sus respectivas tablas salariales, se garantiza a los trabajadores por él afectados el diferencial salarial consistente en cada año entre las retribuciones de dichas tablas salariales y las del año respectivamente anterior, recogiendo en el anexo II por categorías profesionales.

3. Habida cuenta de la naturaleza del Convenio, las disposiciones legales y convenios futuros, que impliquen variación económica en todos o en alguno de los conceptos retributivos, únicamente tendrán eficacia práctica si, globalmente consideradas y sumadas a las vigentes con anterioridad al Convenio, superan el nivel total de éste. En caso contrario, se considerarán absorbidos por las mejoras practicadas.

## CAPÍTULO II

## CONDICIONES DE TRABAJO

**Artículo 5.—Jornada de trabajo y horario**

1. Las horas anuales de trabajo efectivas para los años de vigencia serán de 1.718 para el año 2006; y de 1.713 horas para 2007 y 2008, respectivamente.

2. Se mantendrán las condiciones más beneficiosas en materia de jornada y horario.

3. Seguirá manteniéndose la jornada reducida de verano a título personal, reconocida a las distintas categorías profesionales, si bien a efectos salariales se abonarán las horas efectivamente trabajadas, de acuerdo con lo dispuesto en este artículo.

4. Los calendarios anuales y los horarios ordinarios de trabajo se establecerán de mutuo acuerdo entre la empresa y los trabajadores. Dicho calendario será confeccionado antes del día 30 de abril.

5. Ordu-tegi-arloko itunek hitzarmenaren lege-maila bera izango dute.

6. Orduak baliatu ahal izatea. Aurrekoa gorabehera, hitzarmen honek eraginpean hartzen dituen enpresek, produkzio-premiak tarteko, lanaldia aldatu ahalko dute, gehienez urtean 80 ordutan, eta muga hori zabaldu ahalko da eraginpeko alderdien adostasunez, eta horrek ez du inola ere eragingo hitzarmen honetan itunduriko urteko lanaldiaren edo enpresa bakoitzaren urteko lanaldiaren gehikuntzarik, ezein kasutan ere. Baliatzeko 80 orduko muga handitzeak 100 langile baino gutxiagoko enpresetako 10 langile baino gehiago edo 100 langile baino gehiagoko eta 300 langile baino gutxiagoko enpresetako plantillaren %10 edo 300 langile baino gehiagoko enpresetan 30 langile hartzen baditu eraginpean, enpresak eta langileen ordezkariak lortu beharko dute akordioa.

Oro har, astean 45 ordu lan egin ahalko dira gehienez, eta egunean 9 ordu, salbu eta bi kasuetan ere akordioa badago interesdunen artean, edo enpresaren edo langileen ordezkarien artean.

Enpresek baliatzeko aukera hori erabiltzen badute, idazki bidez jakinarazi beharko diete langileen ordezkariari, neurriak aplikatu baino bi (2) egun lehenago.

Neurri hori aplikatzen zaien txandakako langileei horrek eraginiko joan-etorrietako garraio-bideak bermatuko dizkie enpresak.

Hasiera batean lan-egutegian zehazturiko orduen gain egiten diren orduak ezin ahalko dira ekonomikoki konpentsatu, eta ordu arruntzat hartuko dira kontuan edozertarako ere. Ordu horiek sartu eta hurrengo hilean konpentsatuko dira lehentasunez, eta ahal bada lanaldi osoetan eta erdietan.

Enpresak eta neurri horren eraginpeko langileek adostuko dute konpentsazio-orduak hartzea, baita ordu horiek noiz eta nola hartu ere. Akordiorik lortzen ez badute, alderdietako edozeinek hitzarmenaren batzorde mistoaren erabakiaren eraginpean jar dezake; batzordea astebeteko epean bilduko da, komunikazioa izan denetik zenbatuta, eta eginiko proposamena onartzen ez bada, alderdi bakoitzak denboraren %50 izango du baliatze hori adierazteko, eta astebeteko aurretiaz jakinarazi beharko zaio beste alderdiari.

Artikulu honen 6. idatz-zatian adierazirik 80 orduko mugaren barruan, malgutasun hori erabiltzeko premia ez da ezein unetan ere egutegian lanerako eguntzat ezarriko lanegunetik kanpo egingo, ezta oporralditik kanpo ere, salbu eta enpresaren eta interesdunen arteko aurkako itunik ez badago.

Neurri hori ez da ezein kasutan ere aplikatu ahalko langile batek lantokian bakarrik geratu behar badu eta lan horren nondik norakoa kontuan izanda lan horrek langilearen segurtasunerako arriskurik badu.

Jada lan eginiko orduak ezin badira urte naturalean baliatu, aurreko paragrafoekin bat etorritik, ordu horiek baliatzeko epea hurrengo urteko lehenengo hiru hilekora luzatuko da, salbu eta lan eginiko orduak baliatzeko garaian langilea lan-istripuak eraginiko aldi baterako ezintasuneko egoeraren ondoriozko bajaran badago.

7. Bi alderdiek urtean lanaldiaren banaketa irregularra ezartzea erabaki dute, enpresaren eta langileen ordezkarien artean adosten den moduan. Desadostasunik izanez gero, hitzarmenaren batzorde paritarioari helaraziko zaizkio desadostasun horiek, eta batzordea ados jartzea lortzen ez badu, PRECOren prozeduren eraginpean jarriko ditu.

8. Ezarriko ordutegietan ordu arrunt gisa adierazirikoak gainditzen dituzten lan eginiko orduak apartekotzat hartuko dira, aurreko paragrafoan adierazirik prozeduraren arabera.

5. Los pactos en materia de horario tendrán el mismo rango legal que el propio Convenio.

6. Disponibilidad de horas. No obstante lo anterior, las empresas afectadas por el presente convenio, por necesidades de producción, podrán modificar, hasta un máximo de 80 horas anuales, la jornada diaria, pudiéndose ampliar este límite por acuerdo entre las partes afectadas, sin que ello suponga, en ningún caso, un aumento de la duración de la jornada anual pactadas en el presente convenio o propia de cada empresa. Cuando la ampliación del límite de 80 horas de disponibilidad, afecte a más de 10 trabajadores en empresas de menos de 100 o al 10% de la plantilla en empresas de más de 100 y menos de 300 trabajadores o a 30 trabajadores en empresas de más de 300 trabajadores, el acuerdo deberá alcanzarse entre la empresa y los representantes de los trabajadores.

Con carácter general, semanalmente no se podrá trabajar más de 45 horas, ni tampoco más de 9 horas diarias, salvo, cuando en ambos casos medie acuerdo entre los interesados, o empresa o representantes de los trabajadores.

En el supuesto de que por las empresas se haga uso de esta disponibilidad, deberán ponerlo por escrito en conocimiento de los representantes de los trabajadores con dos (2) días de antelación a la aplicación de la medida.

A los trabajadores a turnos que se les aplique esta medida se les garantizará por la empresa los medios de transporte en los desplazamientos motivados por la misma.

Las horas que se realicen sobre las que inicialmente estén determinadas en el calendario laboral no podrán ser compensadas económicamente y serán consideradas, a todos los efectos, como horas ordinarias. La compensación de estas horas se realizará principalmente durante el mes siguiente a su realización, preferentemente en jornadas completas y medias jornadas.

La empresa y trabajadores afectados acordarán el disfrute de las horas de compensación, así como la fecha y forma del mismo. Si no llegasen a un acuerdo, cualquiera de las partes podrá someterlo a la Comisión Mixta del Convenio, que se reunirá en el plazo de una semana, desde la comunicación, y, si no es aceptada la propuesta que se realice, cada parte dispondrá del 50% del tiempo para señalar dicho disfrute, que deberá ser comunicado a la otra parte con una semana de antelación.

Dentro del límite de las 80 horas señaladas en el apartado 6.º de este artículo, en ningún momento la necesidad de hacer uso de esta flexibilidad se realizará fuera de los días laborables establecidos como de trabajo en el calendario, ni durante el período de vacaciones, salvo pacto en contrario entre la empresa y los interesados.

En ningún caso podrá aplicarse esta medida cuando un trabajador deba quedar sólo en el centro de trabajo, cuando de la propia naturaleza del trabajo a realizar tenga implícito un riesgo para la seguridad del trabajador.

Si no fuese posible el disfrute de las horas ya trabajadas con anterioridad, de acuerdo con los párrafos anteriores, dentro del año natural, el plazo para el disfrute se ampliará durante el 1.º trimestre del año siguiente, salvo que en el momento determinado para el disfrute de las horas trabajadas el trabajador este de baja por ILT derivada de accidente laboral.

7. Ambas partes acuerdan establecer la distribución irregular de la jornada de trabajo a lo largo del año, en la forma y manera que se acuerde entre la empresa y los representantes de los trabajadores. De haber desacuerdo se trasladarán las discrepancias a la Comisión Paritaria del Convenio y si en esta no se alcanza avenencia las someterán a los procedimientos del PRECO.

8. Las horas trabajadas que excedan de las señaladas como ordinarias en los horarios establecidos, según el procedimiento señalado en los párrafos anteriores, serán consideradas como extraordinarias.

**6. artikulua.—Lana egiteko ezintasuna**

Naturaren fenomenoak, eguraldi txarra eta bestelako ezinbesteko arrazoiak direla-eta lan egin ez diren orduak, horiekin loturiko greba edo ugazaben itxieretatik eratorririkoak eta enpresaren esku ez daudenak barne, eta betiere egoera horietan guztietan langilea efektiboki produktiboa den beste modu arrazionalen batean ezin bada erabili, nahitaez 40 ordu arte errekupearatu beharko da eragotzirik lehen lanaldiak hasi beharko zukeen 3 ordu eta 45 minututatik aurrera, eta ordu horiek (3,45) ez ditu langileak sartuko enpresak ordaintzen ote dizkion aparte utzi gabe, salbu eta lana eragotzi duten zirkunstantziek argi eta garbi eta egiaztatze moduan erakusten badute lana egiteko edo lanera iristeko egiazko ezintasuna. Galduriko orduak dagozkien soldata- eta plus-kontzeptuen arabera ordainduko dira soldatari dagokionez, eta horretarako ezartzen den egutegiaren arabera errekupearatuko dira, eta egunean ordubete errekupearatu ahaliko da gehienez, kontrako akordiorik ezean. Jarduneko urteko ordu horiek errekupearatzeko denborarik ez badago, hurrengo urteko lehen lauhilekora eramango dira.

Adieraziriko arrazoiak direla-eta egin gabeko lanorduen errekupeazioaren berri eman beharko die enpresak langileen ordezkari.

Aurreko paragrafoetan azalduko gora-behera, enpresak eta langileek artikulua honetan aurreikusirikoen bestelako akordioak ezarri ahal izango dituzte. Era berean, enpresak, betiere artikulua honetan bilduriko arrazoiak tarteko, lan-kontratuen etenaldia izapidetu ahaliko du, lehen paragrafoan aurreikusirikoa lan-orduek errekupearatzea aparte utzi gabe kasu horretan.

Lehen paragrafoan adosturikoaren ondorioz, langilearen eskubide diren soldata-lansariak ordaindu beharko ditu enpresak lansari horiek gertatzen diren hilabeteetan.

**7. artikulua.—Puntueltasuna**

Hitzarmen honi dagokionez, honako hau hartzen da puntualtasunatzat: langileek beren jardura garatzen duten obran egotea, jardura hasteko egoeran eta ezarritako ordutegiaren barruan. Lege-ondorioetarako, enpresaren egoitza soziala lantokia izango da. Langileak ordubete baino gehiago behar badu bere bizilekutik lantokira (obra) bidean, joan-etorria kontuan hartuta, langileak bere lanaldia egokitu ahaliko du, enpresa-batzordearen edo langileen delegatuaren bidez.

Ordubetetik gorako bidaia-denbora laneko ordu arrunt gisa ordainduko da, langilearen eta enpresaren arteko alde aurreko akordioa tartekoa. Hitzarmenaren I. eranskinean bilduta dago bidaia-orduren balioa; 2006. urtean %4,10eko hazkunde du balio horrek, 2007an %3,50ekoa eta 2008an %3koa. Hitzarmenaren 13. artikuluan xedaturikoa aplikatuko zaie zenbateko horiei. Ez da inolako konpentsaziorik jaso ahaliko bidaia-denbora lan-ordutegian gertatzen bada.

**8. artikulua.—Oporrak**

Hitzarmen kolektibo honek eraginpean harturiko langileek ordainduriko oporrak izango dituzte, konpentsazio ekonomiko batek ordezkazekin, egutegiko 30 egunekoak, asteko lehen lanegunean hasiko direnak.

Oporrak urte natural bakoitzean hartuko dira. Bere zerbitzuak enpresan ematen dituen lehen urtean langileak urte horretan lan eginiko denboraren zati proportzionala soilik baliatzeko aukera izango du kontzeptu hori dela-eta.

Oporrak baliatu gabe urtean enpresan lanpostuari uzten dion langileak sorturiko eta baliatu gabeko zati proportzionalari dagokion soldata kobratzeko eskubidea izango du, likidazioari dagokion kontzeptu gisa. Era berean, dagokiona baino egun kopuru handiagoa baliatuta enpresan lanpostuari uzten dion langileari baliaturiko soberrako egunei dagokien deskontu proportzionala aplikatuko zaio.

Uztaitetik irailera bitarteko hilabeteetan baliatuko dira oporrak, aparte utzi gabe oporrak baliatzeko denboraldia zabaldu ahal izatea jardueraren premiek eraginda, betiere enpresaren eta langile-

**Artículo 6.—Imposibilidad de la prestación del trabajo**

Las horas no trabajadas debido a accidentes atmosféricos, inclemencias del tiempo y otras causas de fuerza mayor, incluidas las provenientes de huelgas o cierres patronales relacionados con ellas y extrañas a la empresa, cuando en todas estas situaciones no pudiera racionalmente emplearse al trabajador en otra actividad efectivamente productiva, se recuperan obligatoriamente hasta 40 horas a partir de las 3 horas 45 minutos en que debió iniciarse la primera jornada de trabajo impedida, las cuales (3,45) no serán recuperadas por el trabajador sin perjuicio de su abono por la empresa, salvo cuando las circunstancias concurrentes en la situación impeditiva de trabajo evidenciaren, de forma clara y constante, la imposibilidad real de la prestación de trabajo o su acceso al mismo. Las horas perdidas serán retribuíbles salarialmente por los conceptos de salario y pluses correspondientes a las mismas y serán recuperables conforme al calendario que se establezca al efecto, sin que la recuperación pueda ser superior a 1 hora diaria, salvo acuerdo distinto. En el caso de inexistencia de tiempo, dentro del año en curso, para su realización se trasladaron al primer cuatrimestre del año siguiente.

La recuperación de las horas de trabajo no realizadas por los motivos referidos deberá ponerse en conocimiento por la empresa a los representantes de los trabajadores.

No obstante lo dispuesto en los párrafos precedentes, la empresa y los trabajadores podrán establecer acuerdos diferentes a los previstos en este artículo. Asimismo, la empresa podrá tramitar, por las causas contempladas en este artículo, la suspensión de los contratos de trabajo, sin perjuicio en este caso de la recuperación de las horas de trabajo previstas en el párrafo primero.

Lo acordado en el párrafo primero conlleva que la empresa abone las percepciones salariales a que tuviere derecho el trabajador en el mes en que tengan lugar.

**Artículo 7.—Puntualidad**

Se entiende por puntualidad, a los efectos del presente Convenio, la presencia de los trabajadores en la obra donde desarrollan su actividad en condiciones de iniciar la misma dentro del horario establecido. Para los efectos legales, el centro de trabajo será el domicilio social de la empresa. Cuando un trabajador invierta más de una hora en el recorrido desde su domicilio al centro de trabajo (obra) entre ida y vuelta, el trabajador, a través del Comité de Empresa o Delegado de Personal, podrá adecuar su jornada de trabajo.

El tiempo de viaje que exceda de una hora será abonado como hora normal de trabajo, o podrá reducirse de la jornada normal de trabajo, previo acuerdo entre el trabajador y la empresa. En el anexo I del Convenio se recoge el valor de la hora de viaje que en el año 2006 tiene un incremento del 4,10; en 2007 del 3,50 y en 2008 del 3%. A estos importes les será de aplicación lo dispuesto en el artículo 13 del Convenio. No habrá lugar a compensación de ninguna clase cuando el tiempo del viaje sea durante el horario de trabajo.

**Artículo 8.—Vacaciones**

Los trabajadores afectados por este Convenio Colectivo disfrutarán de unas vacaciones anuales retribuidas, no sustituibles por compensación económica, de 30 días naturales, que se iniciarán el primer día laborable de la semana.

Las vacaciones se disfrutarán por años naturales. El primer año de prestación de servicios en la empresa el trabajador por este concepto solo tendrá derecho al disfrute de la parte proporcional correspondiente al tiempo trabajado durante ese año.

El trabajador que cese en la empresa en el transcurso del año sin haber disfrutado las vacaciones, tendrá derecho al abono del salario correspondiente a la parte proporcional de las devengadas y no disfrutadas como concepto integrante de la liquidación. Asimismo al que cesara en la empresa habiendo disfrutado un número de días superior al procedente, soportará el descuento proporcional de los días de más disfrutados.

Las vacaciones se disfrutarán los meses de julio a septiembre, sin perjuicio de que por exigencias de la actividad pueda ampliarse el período de tiempo de su disfrute mediando acuerdo

aren arteko akordioaren bidez, eta horri buruzko desadostasunik izanez gero, PRECOren prozeduren bidez erabakiko dira horiek guztiak. Zabalkuntza enpresak eskaturikoa bada, denboraldi berrian baliatzeko prest dagoen langileak beste lau egun gehiagorako eskubidea izango du osorik baliatzen baditu, eta zati proportzionalerako eskubidea partzialki bada. Opor-plus hori ez da aplikatzekoa izango oporraldiaren zabalkuntza ekaineko irailera bitarteko aldi-rik kanpo bada eta egoera jakin batzuen ondorio bada, non enpresaren jardueraren murrizketak langileei lan efektibo produktiboa ematea eragozten duen.

Oporrak txandaka hartzen badira, txandakoak izango dira horiek ere, eta ezabatuta geratuko dira orain arte aplikaturiko lehentasunean zeuden eskubide guztiak.

Enpresaren plantillan hamabi hilabete egon ez eta sei hilabete muga gainditu duten langileek gutxieneko iraunaldi horretara iritsi izan balira egokituko litzaiekeen oporraldia osorik balia dezaten, hori eskatzen duten langileek eta enpresarekin ados jarrita, aurreikusiriko 30 egunak baliatu ahaliko dituzte lansarien sortzape-rik gabe, enpresak hilabete jakin batean ixten badu. Horrela bada, osorik ordainduko zaizkio oporrak.

Oporrak baliatzeko denbora adierazitakoan, denbora hori ezin izango da eten.

Dena dela, oporrak eten egingo dira, betiere oporrak hasteko data baino lehen langileak ezin baditu baliatu honako arrazoi haue-  
takoren batengatik:

- Kontingentzia profesionalen ondoriozko Aldi baterako Ezintasunaren kasuan (lan-istripua eta lanbide-gaixotasuna).
- Kontingentzia arrunten ondoriozko Aldi baterako Ezintasunaren kasuan (lan-arlokoa ez den istripua eta gaixotasun arrunta), gutxienez 15 egun iraun badu eta gutxienez 7 egun ospitaleratzea eskatu badu.

Kasu horietan, honako baldintza hauetan ekingo zaio berriz ere oporraldia betetzeari:

1. Alta medikoa hasiera batean oporrak baliatzeko denboraldiaren barruan gertatzen bada, alta medikoaren egunean ekingo zaio berriz oporraldia betetzeari, denboraldi hori amaitzen den arte. Gainerako egunei dagokienez eta egutegiko 30 egunak bete arte, beste oporraldi bat adieraziko da, urte naturalaren barruan baliatzeko.
2. Alta medikoak hasiera batean adierazirikoa oporraldia igaro eta gero gertatzen bada, oporraldia baliatzeko beste denboraldi bat finkatuko da, urte naturalaren barruan.
3. Oporraldia ez da ezein kasutan ere berriz adieraziko enpresak bere jarduera aldi bateko langileen oporrak direla eta eteten badu, eta zirkunstantzia hori gertatzen dela kontuan hartuko da mantentze-zaintalde bat badago.

Dena den, arestian adierazirikoa ez da aplikatzekoa izango amatasunaren, aitasunaren (naturala edo adopziokoa) edota bularra emateko aldi kontzentratuaren kasuan baimen horiek erabat edo partzialki uztartzen badira oporraldien baliatzearekin, aldi batera utzita gertakari horiek baliatze horren dataren aurretik gertatzen diren edo horrekin aldi berean gertatzen diren. Bi kasuetan ere, oporraldia 30 opor-egunen barruan baliatzeko aukera izango du langileak, eta enpresak baliatu gabeko egunei dagozkien datak horretarako prestatuko ditu.

## 9. artikulua.—Ordainduriko lizentziak

Ahal duen bezain laster jakinarazita, eta behar bezala egiaztatuta, langilea lanera etorri gabe geratu edo lanetik joan ahal izango da, eta kobratzeko eskubidea izango du honako arrazoi haue-  
takoren batengatik, eta ondoren azaltzen den gutxieneko denbora-tartean:

- a) Semea edo alaba jaiotzeagatik: 3 lanegun. Arrazoi hori dela eta langileak 400 kilometro baino gehiagoko bidaia egin behar badu, egutegiko beste 2 egun gehiago eman ahaliko dira.

entre la empresa-trabajador, que de no lograrse por existir discrepancias al respecto, será resuelto por los procedimientos del PRECO. Si la ampliación es a petición de la empresa el trabajador que se avenga a disfrutarlas en el nuevo período de tiempo, tendrá derecho a cuatro días más de sí las disfruta por entero, y si es de forma parcial a la parte proporcional. Este plus vacacional no procederá si la ampliación del período vacacional es fuera del período de junio a septiembre, y obediente a situaciones en las que la reducción de la actividad empresarial impida dar trabajo efectivo productivo al/los trabajador/es.

En el caso de que las vacaciones se disfruten por turnos, éstos deberán ser rotativos, quedando anulado cualquier derecho en la relación del disfrute que se viniera observando con anterioridad.

Al objeto de que el personal que no haya permanecido en la plantilla de la empresa doce meses y haya superado los seis meses, para que pueda disfrutar íntegro el período vacacional que les correspondería de haber alcanzado dicho mínimo de permanencia, se conviene que aquellos trabajadores que así lo soliciten y de común acuerdo con la empresa, podrán disfrutar los 30 días previstos sin devengo de retribuciones, en el caso de que la empresa no cierre en un mes determinado. Si así fuese, se retribuirán las vacaciones íntegras.

Una vez señalado el tiempo de disfrute de las vacaciones, el mismo no será interrumpido.

No obstante, las vacaciones quedarán en suspenso, siempre y cuando antes de la fecha fijada para su inicio el trabajador no pudiera disfrutarlas por alguno de los siguientes supuestos:

- En caso de Incapacidad Temporal derivada de Contingencias Profesional (Accidente de Trabajo y Enfermedad Profesional).
- En caso de Incapacidad Temporal derivada de Contingencias Comunes (Accidente no Laboral y Enfermedad Común) durante al menos 15 días que haya requerido una hospitalización de al menos 7 días.

En estos casos las vacaciones se reanudarán en los siguientes términos:

1. Si el alta médica tuviera lugar dentro del período de tiempo fijado inicialmente para el disfrute vacacional, este se reanuda el día del alta médica hasta la finalización de dicho período de tiempo. Por los días restantes hasta completar los 30 días naturales se señalará un nuevo período vacacional para su disfrute dentro del año natural.
2. Si el alta médica tuviera lugar después de transcurrido el período vacacional señalado inicialmente, se fijará un nuevo período para su disfrute dentro del año natural.
3. En ningún caso procederá un nuevo señalamiento del disfrute vacacional cuando la empresa con carácter general suspenda temporalmente su actividad por vacaciones del personal, considerándose que se produce esta circunstancia, cuando exista un retén de mantenimiento.

No obstante, lo señalado anteriormente no será de aplicación en el caso de maternidad, paternidad (natural o de adopción) y/o período de lactancia concentrada cuando dichos permisos coincidan total o parcialmente con el disfrute de las vacaciones, con independencia de que tales hechos se hayan anticipado a la fecha de inicio de dicho disfrute o acontezcan mientras este tenga lugar. En ambos casos, el/la trabajador/a tendrá derecho a disfrutar dentro del año los 30 días de vacaciones, posibilitando la empresa a tal efecto las fechas correspondientes a los días no disfrutados.

## Artículo 9.—Licencias retribuidas

Los trabajadores, avisando con la posible antelación y justificando adecuadamente, podrán faltar o ausentarse del trabajo con derecho a remuneración por alguno de los motivos y durante el tiempo mínimo que a continuación se expone:

- a) En caso de nacimiento de hijo: 3 días laborables. Cuando por tal motivo el trabajador necesite hacer un desplazamiento de más de 400 km se podrá ampliar hasta 2 días naturales más.

- b) Egutegiko 3 egun, beste bi egun gehiagoz zabaldu ahalko direnak langileak 400 km baino gehiagoko bidaia bat egin behar duenean, gaixotasun larriko edo ospitaleratzeko kasuetan edo ezkontidearen eta seme-alaba, guraso eta anai-arreba odolokide edo kidekoen (ezkontzazkoak) heriotzagatik.
- c) Bi egun natural aitona-amona eta biloba odolokide edo kidekoen (ezkontzazkoak) heriotzagatik, beste egun bat gehiagoz areagotu ahalko dena, langileak 400 km-tik gorako bidaia egin behar badu.
- d) Ohiko etxebizitzaz aldatzeagatik, egutegiko egun 2.
- e) Zeregin publiko edo pribatu bat egiteko, behar den adina denbora. Legezko arau batek edo arau sindikal edo konbentzional batek horretarako aldi jakin bat ezartzen badu, arau horrek xedaturikoa beteko da absentiaren iraupenari eta horren konpentsazio ekonomikoari dagokienez.
- f) Ezarriko denborarako hezkuntza-eskubide orokorrak eta lanbide-heziketa baliatzeko, indarrean dauden legezko xedapenetan arauturiko kasuetan eta moduan.
- g) Produzitzailera ezkontzen bada: 17 egun natural. Ezkontza eta oporrak uztartzen direnean, bi aldiak batuko dira, lizentzia gehi oporrak elkarrekin baliatzeko.
- h) Egun bat gurasoak, seme-alabak edo anai-arrebak (odolkidetasunezkoak edo ezkontzazkoak) ezkontzen badira
- i) Nortasun Agiria: Horretarako behar den denbora emango da lanaldia eta dokumentu publikoak ematen dituzten zentron irekitzeko eta itxeko ordutegia uztartzen badira, betiere Langileen Estatutuaren arabera (37. artikulua, 3.d) idatzatzia).
- j) Kontsulta medikoa: Beharrezko denbora Gizarte Segurantzako espezialistaren kontsulta medikora joateko, non eta, kontsulta hori lanarekin uztartzen delarik, medikuntza orokorreko sendagileak agintzen duen kontsulta hori; dena dela, langileak alde aurretik aurkeztu beharko dio enpresaburuari adieraziriko agindu medikoaren justifikazio-txartela, Langileen Estatutuan eta Industria Siderometalurgikorako Lan Ordenantzaren 60. artikuluan xedaturikoari jarraiki.
- k) Langileek, bederatzi hilabete baino gutxiagoko seme-alaba edoskitzeagatik, lana ordu betez uzteko eskubidea izango dute eta ordu hori bi zatitan hartu ahal izango dute. Honako hau hartzen da absenziazat: langileak hasiriko jarduera etetea eta jarduerari berriz ekitea, betiere lanaldiaren dagokion ordu-eremuan.
- Emakumeak, bere borondatez, lan-murrizketa baliatu ahalko du eskubide horren ordez, lanegun efektibo bakoitzeko ordu-erdiz murriztu, xede berarekin, edo Langileen Estatutuaren 48.4 artikuluan aurreikusiriko amatasun-atse-denaldiaren amaieraren eta bularreko haurrak bederatzi hilabete betetzen dituen artean bilduriko lanaldiaren ordu-erdiko murrizketa metatzea, horren ondoren ere atsedena hartzeko.
- l) Izatezko bikoteen elkartzearen bidez loturiko langileek (Euskadiko maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen baldintzen arabera horrela arauturikoak hartuko dira izatezko bikotetzat) artikulua honetan aurreikusiriko lizentzietarako eskubidea izango dute, betiere beren elkartzea lege horretan arauturiko baldintzetan egiaztatzen badute.

Sortu dituen gertaera eragilearekin batera eta horrek irauten duen bitartean baliatu ahalko dira a), b) eta c) letretan aurreikusiriko lizentziak.

#### 10. artikulua.—*Probaldia*

Indarrean dauden xedapenei jarraiki, langileak probaldian hartuko dira; probaldi hori ez da ezain kasutan sei hilabetetik gorakoa izango tituludunen kasuan, ezta hiru hilabetetik gorakoa ere gai-

- b) Durante 3 días naturales, que podrán ampliarse hasta dos días más cuando el trabajador necesite realizar un desplazamiento de más de 400 km, en los casos de enfermedad grave u hospitalización o fallecimiento del cónyuge e hijos, padres y hermanos consanguíneos o afines (políticos).
- c) Durante dos días naturales por fallecimiento de abuelos y nietos consanguíneos o afines (políticos), que podrán ampliarse hasta 1 día más, cuando el trabajador necesite realizar un desplazamiento de más de 400 km.
- d) Durante 2 días naturales para traslado de su domicilio habitual.
- e) Por el tiempo indispensable para el cumplimiento de un deber inexcusable de carácter público o personal. Cuando conste impuesto por una norma legal, sindical o convencional, un período determinado, se estará a lo que cada norma disponga en cuanto a duración de la ausencia y su compensación económica.
- f) Por el tiempo establecido para disfrutar de los derechos educativos generales y la formación profesional, en los supuestos y en la forma regulados en las disposiciones legales vigentes.
- g) En caso de matrimonio del productor: 17 días naturales. Cuando coincida el matrimonio con las vacaciones se sumarán ambos períodos, licencia más vacaciones para su disfrute.
- h) Un día por matrimonio de padres, hijos y hermanos consanguíneos o políticos.
- i) Carnet de Identidad: se concederá el tiempo necesario en caso de coincidir la jornada laboral con el horario de apertura y cierre de los centros expendedores, de acuerdo con el Estatuto de los Trabajadores, artículo 37, apartado 3.d).
- j) Consulta médica: Por el tiempo necesario en los casos de asistencia a consulta médica de especialista de la Seguridad Social, cuando coincidiendo el horario de consulta con el trabajo, se prescriba dicha consulta por el facultativo de medicina general, debiendo presentar previamente el trabajador al empresario el volante justificativo de la referida prescripción médica, de acuerdo con lo dispuesto en el Estatuto de los Trabajadores y en el artículo 60 de la Ordenanza de Trabajo para la Industria Siderometalúrgica.
- k) Los trabajadores, tendrán derecho, por lactancia de un hijo menor de nueve meses, a una hora de ausencia del trabajo, que podrán dividir en dos fracciones. Se entiende por ausencia, la suspensión de la actividad iniciada por el trabajador y su reanudación dentro de la franja horaria correspondiente a la jornada.
- La mujer por su voluntad, podrá sustituir este derecho por una reducción de jornada en media hora por cada día de trabajo efectivo con la misma finalidad o acumular la reducción de media hora de la jornada de trabajo comprendida entre la finalización del descanso maternal previsto en el artículo 48.4 del Estatuto de los Trabajadores y la fecha del cumplimiento de los nueve meses del lactante, para su descanso a continuación del mismo.
